



sortu

ESPACIO

Galderak

FUTURE

ideas

Preguntas

URVIEHU

$E=mc^2$

DISCOVER

Ideiak

ecología

Solución

Learning

Ikasi

berrikuntza

CREATION

SOCIEDAD

Marrazketa Teknikoa II

USE 2018

www.ehu.eus

literature

40%

30%

60%





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2018ko EKAINA

MARRAZKETA TEKNIKOA II

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2018

DIBUJO TÉCNICO II

Irakasgaia / Asignatura

Ariketaren Kodea / Código ejercicio

Data / Fecha

.....n,(e)koaren(e)an

En, a de de

Kalifikazioa / Calificación

Azterketa honek bi aukera ditu. Azterketariak aukeretako bat (A edo B) hartu eta oso-osoan ebatzi behar du.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Este examen tiene dos opciones. El alumno o alumna podrá escoger una de las dos propuestas (la A o la B) que resolverá en su integridad.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOA 2018ko EKAINA</p> <p>MARRAZKETA TEKNIKOA II</p>	<p>2018 – I Galdera-sorta</p> <p>A atala Orrialdea: 1 (5)</p>
--	---	--

Ariketaren Kodea:


A aukera (hiru ariketa ditu)

1-A ariketa: (A aukerakoa. 3 puntu balio du).

Irudian, plantxa baten diseinua erakusten da. Bere ingurua zirkunferentzia-arkuz eta segmentu zuzenez osatuta dago, bata besteari tangentsia-jarraitutasunez lotuta, puntu angeluar batzuetan izan ezik, ikus daitekeenez. Bereziki, baldintza geometriko hauek nabaritzen dira: t' zuzen horizontala R120ko arkuaren tangentea da; R325ko arkuak R120ko arkuaren tangentea da; R_x erradioa (era grafikoan zehaztu behar da) duen arkuak AC zuzenaren perpendikularra da; R120ko y R100eko arkuak zentrokideak dira; R30eko arkuaren eta AC zuzenaren arteko distantziarik laburrena 30 mm da; R30eko eta R20ko arkuak zentroak batzen dituen zuzena horizontala da.

Ematen diren neurrietan oinarrituta eta irudiko baldintza geometrikoen baliatuta, marraztu, 1/2 eskalan eta hurrengo orrian, plantxaren ingerada (kanpokoa eta barrukoa). Eman zirkunferentzien zentroak eta zehaztu tangentsia-puntuak.

Oharrak: Baliteke emandako irudia desitxuratua egotea, baina kota-zenbakiak gorde egin behar dira. Ariketa ebaztean, ez ezabatu erabili diren marrazki lagungarriak. Kotak milimetrotan daude. Ez da plantxaren zola edo beheko plaka irudikatu behar.



Puntuazioa: 3 puntu (eskala: 0,5p; kanpoko ingerada: 1,5 p; barruko ingerada: 1 p)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOA
2018ko EKAINA


MARRAZKETA TEKNIKOA II


2018 – I
Galdera-sorta

A atala
Orrialdea: 2 (5)

Ariketaren Kodea:

1-A ariketa: (jarraipena)




 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOA 2018ko EKAINA</p> <p>MARRAZKETA TEKNIKOA II</p>	<p>2018 – I Galdera-sorta</p> <p>A atala Orrialdea: 3 (5)</p>
--	---	--

Ariketaren Kodea:

2-A ariketa: (A aukerakoa. 4 puntu balio du).

Aurpegi lauak –zulo zilindriko bat izan ezik– dituen pieza baten bi bista diedriko ematen dira osorik: goitikoa eta eskuin-albotikoa. Hau egin behar da: marraztu aurretiko bista eta osatu, esku hutsez marraztuta, emandako perspektiba.




Puntuazioa: 4 puntu (aurretiko bista: 2,5 p.; perspektiba osatua: 1,5 p.)

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOA 2018ko EKAINA</p> <p>MARRAZKETA TEKNIKOA II</p>	<p>2018 – I Galdera-sorta</p> <p>A atala Orrialdea: 4 (5)</p>
--	---	--

Ariketaren Kodea:

3-A ariketa: (A aukerakoa. 3 puntu balio du).

Orekan dauden bi letra prismatikoren bista diedrikoak ematen dira. Hau egin behar da: $E=4/5$ eskalan, marraztu emandako ardatzetan oinarritzen den perspektiba isometrikoa. Nahi izanez gero, hartu $K_x = K_y = K_z = 1$.



Puntuazioa: 3 puntu (A letra: 1,5 p.; Z letra: 1,5 p.)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOA
2018ko EKAINA


MARRAZKETA TEKNIKOA II

2018 – I
Galdera-sorta

A atala
Orrialdea: 5 (5)

Ariketaren Kodea:

3-A ariketa: (jarraipena)






Ariketaren Kodea:

B aukera (hiru ariketa ditu)

1-B ariketa: (B aukerakoa. 3 puntu balio du).

Irudiak espeka bat erakusten du. Ingerada simetrikoa da eta kurba konikoz osatuta dago (elipse-arku bat, parabola-arku bat, zirkunferentzia-arkuak eta segmentu zuzenak), lotura-puntuetan bata bestearen tangente. Hurrengo orrian eta $E = 4/5$ eskalan, marraztu espekaren profila.

Oharrak: Simetria dagoenez, marraztu espekaren erdia bakarrik. Elipsean, zehaztu hiru puntu erpin baten eta hurrengoaren artean, eta parabolan, zehaztu hiru puntu erpinaren eta mutur baten (P puntua) artean. Irudia desitxuratua dago, baina kota-zenbakiak eta baldintza geometrikoak gorde egin behar dira. Ariketa ebaztean, ez ezabatu erabili diren marrazki lagungarriak. Kotak milimetrotan daude.



Puntuazioa: 3 puntu (elipse-arkua: 1 p.; parabola-arkua: 1 p.; tangenteak eta loturak: 1 p.)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOA
2018ko EKAINA

MARRAZKETA TEKNIKOA II


2018 – I
Galdera-sorta


B atala
Orrialdea: 2 (4)

Ariketaren Kodea:

1-B ariketa: (jarraipena)

2018





 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOA 2018ko EKAINA</p> <p>MARRAZKETA TEKNIKOA II</p>	<p>2018 – I Galdera-sorta</p> <p>B atala Orrialdea: 3 (4)</p>
--	---	--

Ariketaren Kodea:


2-B ariketa: (B aukerakoa. 4 puntu balio du).

Gida baten aurretiko eta eskuin-albotiko bistak ematen dira eskala naturalean ($E = 1/1$). Irudikatu osorik A aurpegia egiazko magnitudean erakusten duen bista lagungarria. Kalkulatu aurpegi horren azalera eta eman zentimetro karratutan.



2018


Puntuazioa: 3 puntu (bista lagungarria: 3 p.; azalera: 1 p.)

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOA 2018ko EKAINA</p> <p>MARRAZKETA TEKNIKOA II</p>	<p>2018 – I Galdera-sorta</p> <p>B atala Orrialdea: 4 (4)</p>
--	---	---

Ariketaren Kodea:

3-B ariketa: (B aukerakoa. 3 puntu balio du).

Egokigailu bat altzairuzko xaflaz egina dago, eta bi aho karratu horizontal lotzen ditu. Bi adar prismatiko horizontal egin nahi zaizkio (sarrera- eta irteera-adarrak). Prismen ertzak luzatuta, lortu egokigailuarekin dituzten elkartze-ertzak. Bistaratu elkargunea, ageriko eta ezkutuko guneak bereiziz.



Puntuazioa: 3 puntu (elkargunea: 2 p.; bistaratzea: 1 p.)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

MARRAZKETA TEKNIKOA II

Aukera bakoitzean (A eta B) ariketa mota hauek proposatzen dira:

- Geometria laua.
- Kurba konikoen marrazketa.
- Geometria espazialeko ariketak.
- Formak irudikatzeko ariketak.

Ariketak irudikapen-sistema diedrikoan eta/edo axonometrikoan ebatzi behar dira, enuntziatuan azaltzen denaren arabera. Perspektiba axonometrikoak marraztean, ageriko lineak baino ez dira kontuan hartu behar.


Aukeretako bat hautatzeak (A edo B) esan nahi du aukera horretako ariketa guztiak hautatu direla (ezin dira inoiz nahasian egin A eta B aukeretako ariketak). **Ikasleak bi proposamenetako bat hautatu beharko du (A edo B), eta oso-osorik egin beharko du.**

Galdera sortan, azterketako ariketa bakoitzak zenbat puntu balio duen ageri da; beraz, ariketa bakoitzaren balorazioa enuntziatuan bertan ageri da. Aukera bakoitzak 10 puntu balio du.





Ariketa bakoitza baloratzeko, hauek izan behar dira kontuan:

- baliabide kontzeptualak behar bezala erabiltzea
- planteamendu zuzena egitea
- marrazkia zehaztasunez egitea
- ariketa bakoitzaren emaitza globala
- aurkezpen gokia, ordena eta txukuntasuna


I-A ariketa / ejercicio I-A




2-A ariketa / ejercicio 2-A






3-A ariketa / ejercicio 3-A






I-B ariketa / ejercicio I-B

2-B ariketa / ejercicio 2-B



Vista V Bista



Cara A Aurpegia

$$Azalera / \text{Área} = \left(60 \times 54 - 24 \times 22,5 - 20 \times \left(\frac{36 + 22,1}{2} \right) \right) \times 10^{-2} \approx 21,2 \text{ cm}^2$$

3-B ariketa / ejercicio 3-B

